

## ENPLEGU JASANGARRIAK IPAR EUSKAL HERRIAN,

### EGINBEHAR BAT ETA AUKERA BAT

José Ramón Becerra (ingeniaria, aholkularia eta militante ekologista)

Twitter: @JoseRa\_Becerra

XXI. mende honen hastapenaz geroz, kapitalismoak pairatzen duen krisi ekonomiko, sozial eta politikoak esperantzari leku guti baizik ez dio uzten. **Kontsumo-ontasunen prokukzio intentsiboaren sistema, bukaerara heltzen ari da, herri garatuetan milaka lanpostu deseginez.** Gastuak apaltzeko xedearekin, saleroste askeak bere arauak inposatzen dituelarik eta laborantza eta industriako ekoizpenak deslokalizatzen direnean, egoera berri honekiko, gure post-industrial gizartearen egokitzeko gaitasuna zalantzan agertzen da.

Egoera berri eta ezezagun honen parean, **ez da deus igurikatze korrik lan baldintzak txartzen edo baliabide publikoen pribatizazioa errexten dituzten politiken aldetik;** alderantziz, neurri horiek jendeen nekeziak areagotuko dituzte eta sistemak bere lehertze finantzario, energetiko eta ekologikoari buruz aitzina segituko du.

Krisiaren aitzinean, **herriak behartuak dira kohesio soziala atxikiko duten tokiko eta eskualdeko estrategien sortzera, lurraldean bizi diren jendeen oinarritzko beharrak eta zerbitzuak ase ditzakeen produkzio tresna garatzen duten bitartean.** Ber maneran, prozesua eraman behar da **lurraldearen gaitasun ekologikoa gainditu gabe,** baliabide naturalak eta energetikoak nahikoak izan daitezen etorkizuneko beharrak asetzeko.

Trantsizio fase honetan, ezinbestekoa da, **politika publikoen eta indar pribatuen norabidea aldatzea jasangarria izanen den ekoizpen sistemaren sorrera laguntzeko,** beharrezkoak diren gaiak eta zerbitzuak hornituko dituen, ekoizpen jarduera sortzen duten ekosistemen osotasuna zaindus aldi berean. Hain zuzen, ekoizpen sail berri horien garapena aukera bikaina da gaindituak, zaharkituak eta jasangarriak ez diren sektoreetan galdutako lanpostuak konpentsatzeko.

Beraz **enplegu iraunkorra edo « enplegu berdea » trantsizioaren zutabe bat da, sistema sozial, ekonomiko eta politiko zuzenago eta ekologikoago bati buruz joateko.** 2008an Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LNE/OIT), Ingurumenaren aldeko Nazioarteko Programa erakundearen kolaborazioarekin (PNUMA) argitaratu zuen lehen txostena. Agerian ematen zituen ingurumenari lotuak ziren sektore ekonomiko desberdinetan lana sortzeko sekulako ahalbideak, hala nola **ekosistemak eta bioaniztasuna zaintzeko, energia, lehengaiak eta ur kontsumoa murrizteko, ekonomiaren karbono-menpekotasuna, kutsadura eta hondakinen ekoizpena ttipitzeko** sailetan. 2009az geroz, gorago aipatutako bi nazioarteko erakundeek bultzaturik, « Enplegu berdeak »<sup>55</sup>programak frango txosten eta agerkari gauzatu ditu, enplegu jasangarrien aukera eta egiazkotasuna zehaztu dituztenak.


2012an<sup>56</sup> LNEk Espainiarendako idatzitako txostena harturik eta hainbat ikerketa kontsultatu ondoren, **Iparraldean sor daitezkeen lanpostu jasangarrien kopurua** estimatu ahal izan dugu. Hipotesi kontserbatzaileak aplikatuz ere, lortu diren emaitzak sinesgarriak dira: hemendik 2030 arte, **arlo jasangarri desberdinetan kasik 6 750 enplegu sor daitezke eta kasik beste 3 250 enplegu laborantza eta merkataritza bezalako sektore ekonomikoak birtokiratuz.**

<sup>55</sup> Organisation Internationale du Travail: <http://www.ilo.org/global/topics/green-jobs/lang--en/index.htm>

<sup>56</sup> Organisation Internationale du Travail: "Green jobs for sustainable development. A case study of Spain", August 2012 ([http://www.ilo.org/global/topics/green-jobs/publications/WCMS\\_186715/lang--en/index.htm](http://www.ilo.org/global/topics/green-jobs/publications/WCMS_186715/lang--en/index.htm))

<b>Hazkuntza biologikoa edo/eta kalitatezkoa</b>	<b>942</b>
<b>Kostaldeko arrantza jasangarria</b>	<b>281</b>
<b>Oihaneke aktibitate jasangarriak</b>	<b>74</b>
<b>Uraren arloa</b>	<b>142</b>
<b>Eremu naturalak</b>	<b>77</b>
<b>Industriak eta ingurumenari buruzko arauak</b>	<b>41</b>
<b>Ingurumenari lotuak diren ikerketa eta garapena</b>	<b>43</b>
<b>Energia ekonomia</b>	<b>509</b>
<b>Energia berriztagarria</b>	<b>3 039</b>
- Haize-energia potentzia ertain eta ttipikoa	0
- Itsasoko haize-errotak	0
- Hidrauliko ttipiak	0
- Uhainen eta marearen energia	454
- Eguzki indar foto-voltaique-a	829
- Eguzki indar termikoa	232
- Geotermia	185
- Biomasa	1 322
- Biogasa	17
<b>Bizitegien zaharberitze energetikoa</b>	<b>627</b>
<b>Mugikortasun jasangarria</b>	<b>421</b>
- Txirrindula	162
- Hiriguneko garraioak (autobusa,...)	100
- Autoak zerbitzu libloan	6
- Merkantzien garraioa	117
- Hiriarteko burdinbidea	32
- Orotarik	4
<b>Zaborren arloa</b>	<b>555</b>
- Berziklatu	374
- Konpostatu	40
- Ber-erabili	141
<b>ENPLEGU JASANGARRIAK</b>	<b>6 751</b>
<b>Hazkuntzaren ber-tokiratzea</b>	<b>1 293</b>
<b>Komertzioaren ber-tokiratzea</b>	<b>1 962</b>
<b>ENPLEGU BERTOKIRATUAK</b>	<b>3 255</b>
<b>ENPLEGUAK OROTARA</b>	<b>10 006</b>
<b>A KATEGORIAN DIREN ENPLEGU GALDEGILEAK</b>	<b>15 883</b>

Lehen taula. Ipar Euskal Herrian enplegu jasangarrien sortzeari buruzko sintesia



Lehen irudia. Ipar Euskal Herriko enplegu jasangarri potentzialen banatzea, arlo ezberdinetan

## Energia

Datuen azterketa zehatzagoak **enplegu iraunkor gehienak energiaren arloan kokatzen direla** nabarmentzen du. Ez da bitxia, gizarte garatuek energia anitz, merke eta kutsatzailea kontsumitzen baitute. Ondorioz, sistema energetiko eraginkorrago, garbi eta iraunkorrerantz beharrezkoa den trantsizioaren aldeko ahalegina handia izan behar da, bai ekonomiaren ikuspuntutik, baita sozialarenetik; aldi berean, aldaketa horren dinamikak **enplegu berri andana bultzatuko dute**. Sentsu horretan, OIT/LNEk (Lanaren Nazioarteko Erakundea), **energia berriztagarrien garapenari dagokionean soilik**, 2030 arte munduan gaindi 20 milioi lanpostu sor daitezkeela estimatzen du.

**Frantses Estatuan**, CIRED/NIGIZ erakundeak (Nazioarteko Ingurumena eta Garapenari buruzko Ikerketen Zentroa) 2013an<sup>57</sup> kalkulatu zuen Estatuaren **trantsizio energetikoak, 2020rako, 220.000 eta 330.000 arteko denbora osozko lanpostuak sortuko lituzkeela, eta 2030eko, 560.000 eta 820.000 artean**. Ikerketa hau, négaWatt<sup>58</sup> elkarteak lehenago egindako lanaren ganean oinarritzen da; horiek energia aurreztearen aldeko neurri drastikoak (lehen mailako energiaren eskaera %66an murriztea 2050erako) aurreikusi dituzte, baita CO<sub>2</sub> isurtzeen apaltzea (%50ean 2030erako, 2010 urtearekin erkatuz) eta energia nuklearraren baztertzeta 2033ko.

Dena den, ikerketa honen kalkuluak **SER<sup>59</sup>/EBS-ak (Energia Berriztagarrien Sindikatua) estimatu duen energia berriztagarrien ekoizpenaren ahaleraren ganean** oinarritzen dira, zehazkiago, Frantzia guztirako 2030erako plantatzen duten energia agertokia (2. Taula). Neurri ttipiagoko beste informazio-iturri bat izan da CESER Aquitaine eta CES-EBS Euskadi<sup>60</sup>. Kasu guztietan, **energia ekoizpen gehigarriaren gaitasuna baizik ez da kontuan hartua izan**, eskualdean<sup>61</sup> jadanik instalatuak dauden ekoizpen gaitasunak kontuan hartu gabe.

SECTEUR DES ÉNERGIES RENOUVELABLES	SITUATION FIN 2010 EN Mtep	OBJECTIFS 2020 EN Mtep	PROJECTION 2030 EN Mtep
<b>CHALEUR</b>	<b>13,3</b>	<b>19,6</b>	<b>24,7</b>
Bois (Chauffage domestique)	7,4 (6 MILLIONS d'appareils)	7,4 (9 MILLIONS d'appareils)	7,4 (11 MILLIONS d'appareils)
Bois et déchets (collectif, tertiaire, industrie)	4,1	9	12
Solaire thermique, PAC et géothermie	1,8	3,2	5,3
<b>ÉLECTRICITÉ</b>	<b>7,1</b>	<b>14,3</b>	<b>24,7</b>
Hydroélectricité	5,4 (25 000 MW)	5,8 (27 500 MW)	6,1 (28 500 MW)
Biomasse et biogaz	0,8 (1 500 MW)	1,4 (2 700 MW)	1,8 (3 500 MW)
Éolien	0,85 (5 600 MW)	5 (25 000 MW)	11,8 (55 000 MW) <sup>R1</sup>
Solaire photovoltaïque	0,05 (1 000 MW)	2 (20 000 MW)	4 (40 000 MW) <sup>R2</sup>
Autres filières solaire thermodynamique, énergies marines, etc.	0	0,1	1
<b>BIOCARBURANTS</b>	<b>2,5</b>	<b>4</b>	<b>4</b>
<b>TOTAL</b>	<b>22,90</b>	<b>37,9</b>	<b>53,4</b>

### Taula 2. 2030<sup>6</sup>-erako SER edo EBS-ek proposatutako energia berriztagarrien ekoizpenaren agertokia

Nabaria da **energia mota bakoitzak ez duela lanpostu kopuru bera sortzen**, izan zuzeneko edo

<sup>57</sup> Centre International de Recherches sur l'Environnement et le Développement, Document de Travail n.46-2013: "L'effet net sur l'emploi de la transition énergétique en France" April 2013 ([http://www.negawatt.org/telechargement/Etude%20Eco/Etude\\_P.Quirion\\_Emplois%20et%20scenario%20negaWatt\\_28-03-2013.pdf](http://www.negawatt.org/telechargement/Etude%20Eco/Etude_P.Quirion_Emplois%20et%20scenario%20negaWatt_28-03-2013.pdf))

<sup>58</sup> Association négaWatt: "Scénario négaWatt 2011" Septembre 2011 ([http://www.negawatt.org/telechargement/SnW11/Scenario-negaWatt-2011\\_Dossier-de-synthese.pdf](http://www.negawatt.org/telechargement/SnW11/Scenario-negaWatt-2011_Dossier-de-synthese.pdf))

<sup>59</sup> Syndicat des Énergies Renouvelables: "Le livre blanc des énergies renouvelables. Des choix qui fondent notre avenir" Février 2012 ([http://www.photovoltaique.info/IMG/pdf/2012115824\\_livreblanccomplet\\_ser.pdf](http://www.photovoltaique.info/IMG/pdf/2012115824_livreblanccomplet_ser.pdf))

<sup>60</sup> CESER Aquitaine: "Coopération CES vasco – CESER Aquitaine. Énergies renouvelables" Octobre 2013 (<http://www.ceser-aquitaine.fr/informations/cooperations/2014/2014-02-25-eerr-euskadi-aquitania-fr-voidiff.pdf>)

<sup>61</sup> Direccte Aquitaine, n.8: "Les énergies renouvelables en Aquitaine: des enjeux internationaux" Février 2013 ([http://www.aquitaine.direccte.gouv.fr/IMG/pdf/Note\\_energies\\_150213.pdf](http://www.aquitaine.direccte.gouv.fr/IMG/pdf/Note_energies_150213.pdf))

zeharkako enpleguak. Iparraldeari dagokionez, Espainian eta Hegoaldean <sup>62 63 64</sup> lortu dituzten zenbait ikerketen emaitzak erabili dira. Ikerketa horiek diote teknologiaren arabera, **2,8 eta 35 arteko zuzeneko lanpostu sor daitezkeela, instalatua dagoen potentzia MW bakoitzeko**; eta **zenbaki berdintsuak zeharkako enpleguei buruz**, kontuan hartzen den teknologiaren arabera. Gainera, hipotesi kontserbadoreenak hartu dira (0,025 enplegu/eguzki panel m<sup>2</sup>-ka eguzki termikoan, 4 enplegu instalatua den MW-ka fotovoltaikoan eta geotermikoan, 14 enplegu/MW-ka biogasean, 22,7 enplegu/MW-ka uhinen indarrean eta 35 zuzeneko enplegu eta 31 zeharkako enplegu/MW-ka biomasan).

Horrela, Iparraldeak bere baliabide energetiko propio zenbait dituela eta beste zenbait eskas zaizkiola oinarritzat hartuz, laburbildu daiteke enplegu iraunkor berriak **biomasaren esplotazio jasangarritik etorriko direla (1.322 lanpostu), eguzki panel fotovoltaikoen instalaziotik (829 enplegu), eguzki panel termiko eta geotermikoko energia instalazioetatik (417 enplegu) eta itsasaldi energia garapenari esker (454 enplegu)** <sup>65</sup>. Aldiz, energia eolikoa, energia hidraulikoa eta uhinen energia ez dira kontuan hartu, duten potentzial eskasagatik. Ez dira kontuan hartu ere hidrogenoaren ekoizpena <sup>66</sup> garatzeko dauden planak, ez delako energia primarioa. Halere, **bertako energia berriztagarriak baliatuz, orotara 3.038 enplegu** sortzea egingarri dela kontsidera daiteke (ikus 2. grafikoa).

Energia berriztagarrien arloan sortzen diren enpleguen datuak koherenteak dira energia ereduaren aldaketa erabaki duten zenbait herrirekin alderatuz, adibidez **Alemania**. Han, estatistika ofizialek erakusten dute energia berriztagarriei lotua zaion **enplegua 160.500etik 370.000 pertsonatara emendatu dela 2004 eta 2010 artean**, %230eko emendatzearekin (ia %40a urtero) <sup>67</sup>. Estimaten dute **enplegu horien bi herenak 2000an legeari eraman zitzaion aldaketei zor dizkietela** (la "Renewable Energy Sources Act"), Die Grünen –eko ekologistak Alemaniako gobernuan sartu eta bi urtera bakarrik.

**Espainiaren** kasua kontrakoa da. **2011 urtetik goiti** gobernu sozialistek eta kontserbadoreek bozkaturako **lege-erreformek energia berriztagarrien sektorearen hondoratzea eragin dute**, 2008 eta 2013 artean **42.748 enplegu suntsituz** (20.000 eguzki energiaren inguruan, 3.600 haize-indarraren inguruan) <sup>68</sup>. Bereziki adierazgarria da **Nafarroaren** kasua, 2009an, argindarrari dagokionez, beharren %81a segurtatzen baitzuen energia berriztagarriei esker, %100eko helburua zuenean 2020rako, 6.300 lanpostu gehigarri sortuz, existitzen diren 5.000 lanpostuez gain. Aldaketa normatiboek aurreikusi ziren inbertsio guztiak geldiarazi dituzte.

---

<sup>62</sup> Instituto Sindical de Trabajo, Ambiente y Salud (ISTAS): "El autoconsumo energético y la generación distribuida renovable como yacimiento de empleo" Septiembre 2014 ([http://www.istas.ccoo.es/descargas/1901940-Estudio\\_El\\_Autoconsumo\\_energetico\\_y\\_la\\_generacion\\_distribuida\\_renovable\\_como\\_yacimiento\\_de\\_empleo.pdf](http://www.istas.ccoo.es/descargas/1901940-Estudio_El_Autoconsumo_energetico_y_la_generacion_distribuida_renovable_como_yacimiento_de_empleo.pdf))

<sup>63</sup> Consejo Económico y Social Vasco (CES): "El desarrollo de las energías renovables en la Comunidad Autónoma del País Vasco" Diciembre 2011 ([http://www.cesegab.com/Portals/0/Libros/I09-3%20EERR\\_cast\\_web%20marzo%202012.pdf.pdf](http://www.cesegab.com/Portals/0/Libros/I09-3%20EERR_cast_web%20marzo%202012.pdf.pdf))

<sup>64</sup> Observatorio de la Sostenibilidad en España (OSE) - Fundación Biodiversidad: "Empleo verde en una economía sostenible" Pp. 150-169, Junio 2010 ([http://www.ccoo.es/comunes/recursos/1/doc19288\\_Informe\\_sobre\\_empleos\\_verdes\\_del\\_Observatorio\\_de\\_la\\_Sostenibilidad\\_de\\_Espana.pdf](http://www.ccoo.es/comunes/recursos/1/doc19288_Informe_sobre_empleos_verdes_del_Observatorio_de_la_Sostenibilidad_de_Espana.pdf))


<sup>65</sup> Institut Français de Recherche pour l'Exploitation de la Mer (IFREMER): "Les énergies renouvelables marines. Synthèse d'une étude prospective à l'horizon 2030" Mars 2008 ([http://www.ifremer.fr/content/download/39242/536346/file/Ifremer\\_synthese-etude-prospective-EnRM.pdf](http://www.ifremer.fr/content/download/39242/536346/file/Ifremer_synthese-etude-prospective-EnRM.pdf))

<sup>66</sup> O.Girel, Conseil Régional Aquitaine: "L'hydrogène en Aquitaine" ([http://www.afhypac.org/images/documents/aquitaine\\_o\\_girel.pdf](http://www.afhypac.org/images/documents/aquitaine_o_girel.pdf))

<sup>67</sup> Wikipedia, March 2015: [http://en.wikipedia.org/wiki/Renewable\\_energy\\_in\\_Germany](http://en.wikipedia.org/wiki/Renewable_energy_in_Germany)

<sup>68</sup> Asociación de Empresas de Energías Renovables (APPA): "Estudio del impacto macroeconómico de las energías renovables en España" Diciembre 2014 ([http://www.appa.es/descargas/Informe\\_2013\\_Web.pdf](http://www.appa.es/descargas/Informe_2013_Web.pdf))





## 2. Grafikoa. Ipar Euskal Herrian, Energiaren kudeaketarekin lotua den enplegu jasangarria

Bestalde, lehen-energia iturriak aldatu aitzin ere, ekoizpen esparru guztietan zenbait inbertsio erabakitzea baitezpadakoa da, **energia aurrezteko neurriak bideratzeko**. Etorkizunean, gizarte aberatsenak, energia, modu eraginkorragoan erabiliko dutenak izanen dira. A3E-k<sup>69</sup> (Eraginkortasun Energetikoaren Enpresen Elkarte Espainola) 2009an plazaratu duen ikerketaren arabera, Espainian, urtero 82.500 enplegu arte sor daitezke. Kalkulua **Iparraldeari moldatuz, 509 lanpostu izanen lirateke**, aktibitate ezberdinetan banatuak, hala nola ikuskatze eta zertifikazio energetikoan, argi sistemen arraberritzean, berokuntzan eta klimatizazioan, domotikan eta energia kudeaketan, mugikortasunaren planifikazioan,...

Horrez gain, kontuan hartu behar da Iparraldean gutxi gora behera etxebizitzaren %60a, 1975a aitzin eraiki zela. Ondorioz, **Grenelle<sup>70</sup> deitu Legearen helburuak erdiesteko**, hala nola etxebizitzaren energia kontsumoaren %38az apaltzea 2020rako, beharrezkoa litzateke **5 urtez 83.500 etxebizitzaren arraberritze plano bat plantatzea eta gauzatzea**, horrek 3.000 enplegu sortuko lituzke. CC.OO-k<sup>71</sup> (Comisiones Obreras sindikatua) egindako ikerketa sakon baten gainean oinarritzen da kalkulu hau; honen arabera, etxebizitza baten arraberritzeak zuzeneko eta zeharkako 0.19 enplegu ekartzen du. Haatik, **Baiona-Angelu-Miarritze hiriguneko etxebizitzendako Grenelle Legea errespetatzeko beharrezkoak liratekeen egokitzapenen kostua** aztertzen du 2010an argitaratutako beste ikerketa batek<sup>72</sup>: zailtasun ekonomikoak eta teknikoak azpimarratzen ditu plan anbiziotsu hori gauzatzeko. Honen ustez, hipotesirik hoberena litzateke Grenelle planoko kontsumo apaltzearen aldeko helburua ttipitzea, %38tik %15era pasatuz. **Ondorioz, hipotesi errealistagoa litzateke 10 urtez 33.000 etxebizitza arraberritzea, 627 enplegu sortuz**. Kalkulu horrendako, lehen etxebizitzak, 1975a aitzin eraikiak baizik ez dira kontuan hartu (bigarren etxebizitzak kenduz).

Laburbilduz, **Iparraldean sor daitezkeen enplegu jasangarrien erdia kasik (%45a) energia kudeaketari lotua zaio** (aurrezte, ekoizte, kudeatzea), hots gizarte garatuek saihestu ezin duten desafio erraldoia,

<sup>69</sup> Asociación de Empresas de Eficiencia Energética (A3E): "Estudio sobre el Mercado de la Eficiencia Energética en España" Enero 2010 ([http://www.asociacion3e.org/img/12a3e\\_1304512453\\_a.pdf](http://www.asociacion3e.org/img/12a3e_1304512453_a.pdf))

<sup>70</sup> Loi n° 2010-788 du 12 juillet 2010, portant engagement national pour l'environnement (loi ENE).

<sup>71</sup> CC.OO: "La generación de empleo en la rehabilitación y modernización energética de edificios y viviendas" Diciembre 2010 ([http://www.ccoo.es/comunes/recursos/1/doc62193\\_Estudio\\_rehabilitacion\\_y\\_empleo.pdf](http://www.ccoo.es/comunes/recursos/1/doc62193_Estudio_rehabilitacion_y_empleo.pdf))

<sup>72</sup> Charlot-Valdieu, C.; Outrequin, P.: "Approche territoriale de la réhabilitation énergétique du secteur résidentiel Recherche 2008-2010", Pp. 11-69, Août 2010 ([http://rp.urbanisme.equipement.gouv.fr/puca/activites/La\\_Calade\\_Strategie\\_territoriale\\_rehabilitation\\_Energie.pdf](http://rp.urbanisme.equipement.gouv.fr/puca/activites/La_Calade_Strategie_territoriale_rehabilitation_Energie.pdf))

energia fosilen desagerpena eta aldaketa klimatikoaren larritasunaren efektuak kontuan hartuz.

## **Hondakinen kudeaketa**

Beste esparru honetan ere enplegu jasagarria sortzeko potentzial handia bada: **herri eta hirien eremuetako hondakinen kudeaketan**<sup>73</sup>. Ipar Euskal Herrian, garatuak diren jendarte gehienetan bezala, hondakinak, erabili gabe gelditzen diren baliabideen sinonimo dira, aberastasun eta lanpostu sortzaile lirakeenak. Gure eskualdearen<sup>74</sup> gaurko egoeraren ebaluaketatik hasiz, eta Estatu mailan<sup>75</sup> diren datuak kontuan hartuz, kontsideratzen dugu **555 enplegu berri** sortzen ahal lirakeela.

Europako Batzordeak estimatzen du, konduan hartuz material ezberdinen bizitza zikloa (beren gaikako biltze fasetik hasiz eta beren tratamendu eta azken saltze fasera) 10 000 tona material birziklatzeak 250 enplegu sortzen dituela, jakinez zikin erraustegiek 20-40 enplegu sortzen dituztela, edo kontrolpean diren zabortegeiek<sup>76</sup> 10 enplegu. Ondorioz, berina, papera, kartoia, plastikoa, metala, etab. bezala **birziklatzen ahal diren materialen gaikako biltzearen tasa, gaurko %21etik (hots 21.500 t.-tik), %37ra (37.000 t-ra) igotzeak, 374 enplegu sor litzake.**

Horrez gain, **hondakinak** (altzarien, jantzien, liburuen, etxetresna elektrikoen, etab.) **estatu onean berreskuratzea eta berrerabiltzea**, izan dadin hondakindegietan edo "baliabidetegietan", edo atez ateko gaikako bilketarekin, enplegu iturri interesgarria da, eta ber maneran, pertsonaka kondatzen den hondakin kopurua, hein handi batean, ttipitzen du. Euskadin, hondakin horien kudeaketa, ekonomia sozialaren arloko kooperatiben gain da, jakinez hiri-hondakinen %3a biltzen dutela (Emaús, S.Coop.) Gipuzkoan eta Bizkaian, enplegu tasa 200 enplegukoa dela 3.500 t materialei balioa emanez geroz (Koopera, S.Coop.). Iparraldean, holako inizatibak martxan ezarriz, **141 enplegu berri sortzen ahal lirake.**

Azkenik, estimatzen da **hondakin organikoen %50a<sup>77</sup> molde berezitan biltzeak eta konpostatzeak, ia 40 lan postu sor litzakeela.** Gaur egun, Ipar Euskal Herrian, bio-hondakinak (edo hondakin organikoak), balioa ematen ez zaien beste hondakinekin<sup>78</sup> nahasiak eta 2 TMB zentrotan (Canopian eta Mendixkan) tratatuak dira, balioa eman ezin zaien hondakinen zatia, Zaluaga Bi hondakindegira igorria izaki. Hala ere, alternatiba honek ez du ahalbidetzen kalitatezko konposta lortzea, atez ate bio-hondakinak biltzeko sistemaren bidez eta ondorioz **hondakin organiko horien konpostatzearekin (plataforma zentralizatu batzuetan edo auzoetako konpostagailuetan)** egiten den bezala.

## **Garraioa**

**Jendeen mugikortasuna eta salgaien salerosketan gertatuko diren saihestezinezko aldaketak** eta hauekin gertatuko den energia fosil iturrien agortze progresiboa, enplegu jasagarriaren funtsezko gunea dira. Hala ere, lurralde bakoitzak, hiritarren lekualdatze moldeak baldintzatzen dituen ezaugarri bereziak agertzen ditu (orografia, klima, hiri barreatzea...), eta horrengatik, enplegu ahalmenaren azterketa, aldagai hau aintzat hartuz baizik ez da burutu beharko. Iparraldearen kasuan, Euskal-

<sup>73</sup> Par résidus urbains, on désigne l'ensemble des déchets dont l'élimination doit être assurée par les communes (déchets ménagers et ceux issus de l'activité économique, du nettoyage, des espaces verts et de l'assainissement publics)

<sup>74</sup> Bil ta Garbi: "Rapport Annuel 2013" ([http://www.biltagarbi.fr/syndicat/images/RA\\_2013\\_Planches.pdf](http://www.biltagarbi.fr/syndicat/images/RA_2013_Planches.pdf))


<sup>75</sup> Agence de l'Environnement et de la Maîtrise de l'Énergie (ADEME): "La composition des ordures ménagères et assimilées en France" 2007 ([www.sinoe.org/documents/download/idDoc/1176](http://www.sinoe.org/documents/download/idDoc/1176))

<sup>76</sup> Commission des Communautés Européennes: "Mise en œuvre de l'utilisation durable des ressources: Une stratégie thématique pour la prévention et le recyclage des déchets" Décembre 2005 (<http://eur-lex.europa.eu/legal-content/FR/TXT/PDF/?uri=CELEX:52005DC0666&from=ES>)

<sup>77</sup> Bizi!: "La mise en question des déchets. Ou la quadrature du cercle du système capitaliste productiviste qui ronge la planète" 2012

<sup>78</sup> Bizi!: "La mise en question des déchets. Ou la quadrature du cercle du système capitaliste productiviste qui ronge la planète" 2012

Landestar Hirigunean<sup>79</sup> 2010ean burutu mugikortasun usaiei buruzko ikerketan aurkitzen diren datuak erabili dira. Bukarako emaitzak erakusten du mugikortasun jasangarriak **421 enplegu garbi sortzea eragin dezakeela**, 3. grafikoak erakusten duen gisara.



### 3. grafikoa Iparraldean sor daitezkeen mugikortasunarekin lotutako enplegu jasangarria

**Bizikletaren kasuan, Iparraldean herritarren %1,3ak besterik ez du erabiltzen** bere eguneroko joan etorrietarako<sup>25</sup>. Espainian burutu ikerketa batek<sup>80</sup> adierazten zuen 66.702 enplegu garbi sor daitezkeela bizikletaren erabilpena %0,16tik %1,11ra pasaraziz, 2020 urterako mugikortasun eszenatoki eraginkor batera buruz joateko helburuari eutsiz gero. Emaitza hauek zeharrraldutuz, **Iparraldean bizikletaren usaia erabilpena %1,3tik %2ra pasaraziz, 162 enplegu inguru sor daitezke**, hauek guztiak hiriko bizikleta mailegu zerbitzu batzuk edo konponketa eta salmenta jarduerak eraginik, hurbileko komertzio eta tailerretan.

**Hiriko autobusei** dagokienez, garapen potentzial azkarrena Baiona-Angelu-Biarritz Hirigunean (ACBA-EKA) kokatua da, bertan hiriko garraio publikoen erabilpena %2,4koa delarik. **Erabilpenaren ratioa %8ra emendaraziz**, Euskadiko hirietako autobus lineen erabilpenaren ratioekin alderatzen badira (%8,4)<sup>81</sup>, **beste 85 enplegu garbi sortzea lor daiteke**. Bestalde, Baionako hirian eta honen inguruetan, Baiona - Marines Hiribideko ("*sufrearen ibilbidea*") burdinbidea **hiriko tranbia** gisa berriz abian ezartzea aitzinikus daiteke, **beste 15 lanpostu gehiago sortarazteko**.

**Hiri arteko trenbidea** ere, garatzeko ahalmena duen beste garraio jasangarri moldea dugu. Iparraldean hiri arteko garraio publikoaren erabilpena %1,7koa baizik ez da. Alta %3raino iganaraziz, **32 enplegu berri sor daitezke** jadanik indarrean diren ibilbideetan. Edozoin kasutan, **abiadura handiko trena (AHT) ez da garraio jasangarritzat hartzen**, hainbat ikerketek zalantzan ezarri baitituzte honen ingurumen,

<sup>79</sup> Baiona-Hego Landesetako LAE Sindikatu Anitza, Euskal Kostaldea- Aturri Hiriguneko Garraioen Sindikatua, Hego Lapurdiko Hirigune Elkargoa: "Euskal-Landestar Hirigunea, 2010eko Ikerketak" 2011ko apirila

<sup>80</sup> Fundación Conde del Valle de Salazar - CC.OO.: "La generación de empleo en el transporte colectivo en el marco de una apuesta por una movilidad sostenible" Enero 2011 (<http://www.istas.ccoo.es/descargas/guia%20movilidad%20200.pdf>)

<sup>81</sup> Gobierno Vasco, Dpto. de Medio Ambiente y Política Territorial: "Panorámica del Transporte en Euskadi 2012" P. 81, Febrero 2014 ([https://apps.euskadi.eus/informe\\_estudio/panoramica-del-transporte-en-euskadi-2012/r41-3441/es/](https://apps.euskadi.eus/informe_estudio/panoramica-del-transporte-en-euskadi-2012/r41-3441/es/))

baita ekonomia<sup>82</sup> arloko bideragarritasuna ere.

Gainera, epe ertaineko ahalmeneko beste enplegu jasangarri gune batzuk badaude ere, hauen artean **ibilgailu mailegu enpresak** ("car-sharing") edo **hiriko mugikortasunaren kudeaketaren aldeko azpiegiturak**, baina hauen zinezko ekarpena ezdeusa da (4 eta 6 enplegu hurrenez hurren).

Bukatzeko, argira ekarri behar da **salgaien garraioaren** arloak izanen duen funtsezko eragina, etorkizunean gertatuko den erregai fosilen eskasia eszenatoki batean. Gaur egungo distantzia handiko errepidezko garraioaren hegemonia bukatzera doa, eta honekin batera, kontinente mailako flota handiekin elkartuak diren milaka lanpostu desagertuko dira. Europa mailan, 2050ari begira **salgaien trafikoaren %50 errepidetik trenbidera eta ibai bide nabigagarrietara pasarazteko estrategia berriak** jadanik aztertu dira<sup>83</sup>. Akitanian gaur egun, baliabide horiek erabiliz garraiatuak diren salgaien proportzioa %12,2 eta 14,9<sup>84</sup> artekoa da. Portzentaia hau burdinbideak 2000n<sup>30</sup> zuen heinera %21,2ra igoz, **azken hamarkadan trenbide arloan galdu ziren enpleguetatik 117 berreskura daitezke**. Aldaketa hauei aitzina hartzea lehentasuna izan behar da Iparralde bezainbat zeharkatua den lurralde baterako. Gainera, salgaien itsas trafikoa (Baionako portua) eta jadanik antolatuak diren trenbide azpiegituren (Hendaiako geltokia) arteko bateratzea, aukera ezin hobea da sinergiak sustatzeko.

### **Laborantza eta abelazkuntza**

Etorkizuneko gizarte jasangarrien ezaugarrietako bat, **ekoizpen baliabideak kudeatzeko moldea izan da**, uneko behar kolektiboak erantzuteko gisan, baina ondoko belaunaldienak zalantzan ezarri gabe. Zentzu honetan, garrantzi nagusia hartzen dute **lehen sektorearen eraldaketak eta baliabide naturalen kudeaketa jasangarria duten jardueren garapenak**.

Honela, **ekoizpen biologikoa etorkizun handienetarikoa** duen saila da. E.H.L.G.ren<sup>85</sup> datuen arabera, **badira gaur egun 160 etxalde bio agiridunak** Iparraldean, **erabilgarria den laborantza eremuaren %2,6 inguru**. Eremu hau **%6ra arte emendatzeak**, gaur egun diren ohizko laborantzako etxaldeak biologikora aldatzearen bidez, Grenelle<sup>86</sup> legeak 2012rako helburu gisa finkatu bezala, **119 lanpostu berriren sortzea erran nahi luke**, bio ekoizpenak %30eko lan-esku gehiago eskatzen baitu, ohiko laborantzak baino<sup>87</sup>. Kalkulua egiteko, kontuan hartu da batez beste Iparraldeko etxalde bakoitzak 1,9 pertsona enplegatzen dituela, izan denbora osoz ala lanaldi partzialean.<sup>88</sup>

Gainera, bio sailaz gain, Iparraldean **kalitateari eta jatorri izendapenei lotuak zaizkien laborantza eta abeltzaintza jardura anitz** bada, AOP Ossau-Iraty gasna bezala, Irulegiko AOC arnoak, Ezpeletako AOP biperrak, Itsasuko gereziak, Euskal Xerria edo Idoki, Eztigar eta AMAPak, hauen **baldintza bildumak ("cahier des charges") baliabide naturalen kudeaketa jasangarriarekin koherenteak izan ohi direnak** (bertako espezieak eta lehengaiak, ustiapen estensiboa). Euskal Herriko Laborantza Ganbararen datuen arabera, 2010ean Iparraldeko etxaldean ia %50, ekimen hauetariko bati lotua zitaion<sup>89</sup>. Ehuneko hori %65eraino emendatuko balitz, **823 lanpostu gehigarri sor litezke**, Iparraldean bertako ekoizpen

<sup>82</sup> Cour des Comptes: "La grande vitesse ferroviaire: un modèle porté au-delà de sa pertinence" Octobre 2014 (<http://www.ccomptes.fr/Actualites/A-la-une/La-grande-vitesse-ferroviaire-un-modele-porte-au-dela-de-sa-pertinence>)

<sup>83</sup> Commission Européenne: "«Transports 2050»: la Commission présente un plan ambitieux pour accroître la mobilité et réduire les émissions" Mars 2011 ([http://europa.eu/rapid/press-release\\_IP-11-372\\_fr.htm](http://europa.eu/rapid/press-release_IP-11-372_fr.htm))

<sup>84</sup>

<sup>85</sup> Euskal Herriko Laborantza Ganbara: "Portrait & Évolution de l'agriculture du Pays Basque Nord, focus sur la montagne basque" Tome 2, P. 52, Octobre 2014

<sup>86</sup> Loi n.2009-967 du 3 août 2009 de programmation relative à la mise en œuvre du Grenelle de l'environnement (<http://www.legifrance.gouv.fr/affichTexte.do?cidTexte=JORFTEXT000020949548>)

<sup>87</sup> Amigos de la Tierra: "Modelos de agricultura en tiempos de crisis" Junio 2010 (<http://www.tierra.org/spip/IMG/pdf/modelosdeagricultura-1.pdf>)

<sup>88</sup> Euskal Herriko Laborantza Ganbara: "Portrait & Évolution de l'agriculture du Pays Basque Nord, focus sur la montagne basque" Tome 1, P. 12, Octobre 2014

<sup>89</sup> Euskal Herriko Laborantza Ganbara: "Portrait & Évolution de l'agriculture du Pays Basque Nord, focus sur la montagne basque" Tome 2, P. 47, Octobre 2014



agirididunean ari diren etxaldeek 1,6 Lan Unitate Urteko/etxaldeka behar baitute, batz besteko ustiapenak behar dituen 1,3 LUUei konparatuz<sup>90</sup>.

## **Arrantza**

Bestalde, **arrantza ontzidiaren birmoldaketak, jasangarrienak diren lanbideetan galdu zen enpleguaren zati handi bat berreskuratzea ahalbidetuko luke**. Izan ere, Iparraldean lanaren gehiengo alturako arrantzan ("*peche au large*") bildua da, lanpostuen %70a. Alta, ontzidi honek baliatzen dituen arrantza tresneriak ("*chalut & sennes de fond*")<sup>91</sup> ez dira egokienak Bizkaiko Golkoan dauden arrantza baliabideen<sup>92</sup> mantentzea bermatzeko.

Zentzu honetan, NEFak kalkulatu du Europako 43 arrantza-toki berreskuratu eta beren Errendimendu Jasangarri Goreneraino eramateak (EJG-RMD), Frantzia 6.100 lanpostu berriren sortzea ekar lezakeela<sup>93</sup>. **Iparralderako estimazioaren 281 lanpostu berriren** azken zenbakia, bertako ontzidiari lotu enpleguak Frantziakoetatik (2013ko datuak) estrapolatuz lortu da<sup>94</sup>.

## **Oihanetako baliabideak**

**Oihanetako baliabideen kudeaketari dagokionez**, Ipar Euskal Herria esperientzia handia duen eskualde baten parte da. **Ipar Euskal Herrian** oihanen eremu emankorrak Akitania iparraldean baino mugatuagoak dira (%42 *mendietan*, %28 *behe-mendietan*)<sup>95</sup>, baina hala ere oraino **70.000 hektare badira**. Horrelako oihan eremuen baliatze jasangarriak enpleguak sor litzazke. Adibidez, zaldien, "burdinezko zaldien" edo kableen bidezko trunko-en biltzeek usaian, eta sustu maldetan, makinekn bidez ondorioztatzen diren lurraren gaineko kalte eta higadurak ttipitu behar litzazke. Ondorioz, **kableen bidezko bilketaren zabaltzeak Mendi eskualdean diren oihan publikoetan** (emankorrak diren 63.600 hektareen %76an)<sup>96</sup> **sortu behar litzazke 66 enplegu**, konduan hartuz langile beharra hirukoizten dela. Horrez gain, **segurtasun gehiago ekartzen dituen FSC labelaren lortzeak, Ipar Euskal Herriko oihan eremu emankorren %100a labelizatuz, beste 8 enplegu ahalbidetuko litzazke**, kontuan hartuz labelizatuak diren 5.000 ha berri bakoitzeko, enplegu bat sortzen dela<sup>97</sup>.

## **Ingurumenaren kudeaketa**

Beste esparru interesgarri bat, uraren kudeaketarena da. Zehazki **hiriguneetako ur zikinen garbitzea**. Frantses gobernuaren Behatze eta Estatistika Zerbitzuen datuen arabera, **Akitania eskualdean eraikinen %5-10ak ez du ur zikinen biltzeko eta tratatzeko sistemarik**<sup>98</sup>. Kotsideratzen badugu eraikin horien %10a (hots ia 900 eraikin urtero) sanotze normei egokituak izaiten ahal dela, kalkulatu da

<sup>90</sup> Euskal Herriko Laborantza Ganbara: "Portrait & Évolution de l'agriculture du Pays Basque Nord, focus sur la montagne basque" Tome 1, P. 49, Octobre 2014

<sup>91</sup> Ministère de l'Agriculture et de la Pêche: "La pêche et l'aquaculture" Avril 2012 ([http://www.developpement-durable.gouv.fr/IMG/pdf/Chiffres\\_cle\\_peche.pdf](http://www.developpement-durable.gouv.fr/IMG/pdf/Chiffres_cle_peche.pdf))

<sup>92</sup> Institut Français de l'Environnement (IFEN): "Etat des stocks de poissons commerciaux" Août 2008 ([ftp://195.6.33.4/pub/dce/coordinationweb/uploads/media/fiche\\_peche\\_02.pdf](ftp://195.6.33.4/pub/dce/coordinationweb/uploads/media/fiche_peche_02.pdf))

<sup>93</sup> New Economics Foundation (NEF): "La pêche durable relève d'un simple bon sens économique" Mars 2013 ([http://www.neweconomics.org/page/-/images/publications/Fish\\_Briefing\\_French.pdf](http://www.neweconomics.org/page/-/images/publications/Fish_Briefing_French.pdf))

<sup>94</sup> Institut National de la Statistique et des Études Économiques, 2013: [http://www.insee.fr/fr/themes/tableau.asp?reg\\_id=4&ref\\_id=agrtc10303](http://www.insee.fr/fr/themes/tableau.asp?reg_id=4&ref_id=agrtc10303)

<sup>95</sup> Comité PEFC Aquitaine: "État des lieux portant sur la gestion durable des forêts d'Aquitaine" Mai 2007 ([http://www.pefcaquitaine.org/export/Extrait%20EDL\\_AQ\\_REVO.pdf](http://www.pefcaquitaine.org/export/Extrait%20EDL_AQ_REVO.pdf))

<sup>96</sup> FIBOIS Alsace: "Avenir et adaptation des ETF aux nouveaux enjeux (mécanisation, gestion durable, etc.) & Capacité des ETF à investir dans la modernisation de leur outil de travail" Octobre 2009 ([http://www.fibois-alsace.com/files\\_upload/documentation/201003170905500.FIBOIS-capacite-ETF-2009.pdf](http://www.fibois-alsace.com/files_upload/documentation/201003170905500.FIBOIS-capacite-ETF-2009.pdf))

<sup>97</sup> FSC France: "Le Forest Stewardship Council : 20 ans de croissance" 2014 (<fr.fsc.org/download.communique-de-presse-4.83.pdf>)

<sup>98</sup> CGDD-DATAR: "Des indicateurs de développement durable pour les territoires" Janvier 2014 ([www.datar.gouv.fr/ob-servatoire-des-territoires/fr/publication-rep-res-cgdd-datar-des-indicateurs-de-d-veloppement-durable-pour-les-territoires-janvier](http://www.datar.gouv.fr/ob-servatoire-des-territoires/fr/publication-rep-res-cgdd-datar-des-indicateurs-de-d-veloppement-durable-pour-les-territoires-janvier))



horrek 142 bat enplegu sor litzazkeela (4 enplegu egokituak liratekeen 25 egoitzaka).

Bestalde, **industria arloan ingurumenari lotuak zaizkion aktibitateen kudeaketak** Ipar Euskal Herrian hainbat enplegu sor litzake. Ber maneran, iraunkorrakoak diren **produktu berriei buruzko ikerketa eta garapenak** (eko-design, biziraupenaren zikloaren ikerketa, etab.) enpleguak sor litzake. Arlo horretan, **orotara, 84 enplegu garbi sortzen ahal dira.**

### Eremu naturalak

Horrez gain, **babestuak diren eremu naturalen kudeaketa egokiak**, ekosistemen babesaren bermatzeko, ondokoak behar ditu: zainketa, mantenu eta kontserbatze lanak hobetzea baita ingurumenari buruzko heziketa eta ikerketa aktibitateen garapena ere. **Ipar Euskal Herriko lurraldean**, badira 32 eremu Natura 2000 izendapenean sailkatuak, 37 gune eremu Natura Minbera gisa izendatuak, Biotopo Babestu bat (Luberria) eta Eskualde mailako Erreserba Natural bat (Hego Lapurdiko Hirigunean). Eremu horien kudeatzeko beharrezkoa den guttienezko azpi-egiturak **guttienik 51 lanpostu beharrezkoak ditu**, kontserbatze lanak soilik kontuan hartuz (orotara diren langileen %10a, jakinez, batz beste, 7,2 lanpostu behar direla estimatu, babestekoa den eremu natural bakoitzeko)<sup>99</sup>.

Bestalde, garapen jasagarriak hirigintzaren beste ikusmolde bat galdegiten du. **Ikusmolde horrekin hiri ondoetako ekosistemek eta paisaia antolaketa konduan hartzen duen eremu berdeen kudeaketak gero eta gehiago garrantzia hartzen dute.** Arlo hortan badira perspektiba interesante batzuek "paisaia antolatzaile ingeniaria / ekologoa" edo "azpiegitura berdeen teknikaria/ingeniaritza ekologikoa" bezalako enpleguentzat. "Ile-de-France" eskualdean egina izan den inkesta berri batzuren datuak erabiliz<sup>100</sup> ondorioztatzen ahal da Ipar Euskal Herrian **sortzen ahal litaizkela 26 enplegu** inguru ofizio horietan.

### Aktibitate ekonomikoaren birtokiratzea

Garrantzitsua da azpimarratzea, trantsizio energetikoa eta ekonomikoa ezingo direla osoak izan, ez baldin badira gaur egungo jendartearen ekoizpen eta kontsumo ereduaren aldaketa sakon batez jarraituak. Aldaketa horietan, azpimarratu behar dira **elikagaien ekoizpena den aktibitatearen birtokiratzea** edo **aktibitate komertzialen birtokiratzeko** xedea duten eremuen antolaketa aldatzea. Bi bide horiek harreman hertsia dituzte energia baliabideen erabilpen neurritsuarekin, baina horrez gain, ekonomiaren globalizazioak poliki-poliki suntsitu dituen lanpostuak sortzeko potentziala badute.

Hara nola, Ipar Euskal Herrian, **tokiko elikagai iraunkorren kontsumoaren aitzinean emaitzeko eta garatzeko politikek**, abelazkuntzan ehunka enplegu sortzen ahalko edo atxikitzen ahalko litzukete. Adibide bat: **2000 eta 2010a artean, Ipar Euskal Herriko behi esnedunen %22a desagertu da**, eta behi-esnedun etxaldean %40a<sup>101</sup>, **jakinez 2008an estimatzen zela Frantses Estatuko esne biologikoaren kontsumoaren %23-25a inportatua zela**<sup>102</sup>. Ipar Euskal Herrian esne biologikoaren kontsumoa %20ra arte igoa (Ingurumenaren Grenelle-ak 2020a arte helburutzat finkatu zuen bezala) eta esne hori molde autonomoan lurraldean ekoizteak **289 enplegu berri** sor litzake.

Perspektiba horretan berean, elikagaien arloan, **bertako beharrei erantzuna ekartzeko, bertako ekoizpenaren potentziala** ebaluatuko duten programa batzuk plantan eman behar dira. Beste adibide

<sup>99</sup> Observatorio de la Sostenibilidad en España (OSE) - Fundación Biodiversidad: "Empleo verde en una economía sostenible" Pp: 98-108, Junio 2010 ([http://www.ccoo.es/comunes/recursos/1/doc19288\\_Informe\\_sobre\\_empleos\\_verdes\\_del\\_Observatorio\\_de\\_la\\_Sostenibilidad\\_de\\_Espana.pdf](http://www.ccoo.es/comunes/recursos/1/doc19288_Informe_sobre_empleos_verdes_del_Observatorio_de_la_Sostenibilidad_de_Espana.pdf))

<sup>100</sup> Projet ECECLI Île-de-France: "Evolution Compétences Emplois Climat Ile de France" Juillet 2014 ([http://www.idf.direccte.gouv.fr/IMG/pdf/ECECLI\\_RapportFinal.pdf](http://www.idf.direccte.gouv.fr/IMG/pdf/ECECLI_RapportFinal.pdf))

<sup>101</sup> Euskal Herriko Laborantza Ganbara: "Portrait & Évolution de l'agriculture du Pays Basque Nord, focus sur la montagne basque" Tome 1, Pag. 23 - Octobre 2014

<sup>102</sup> Biolineaires: "30% des produits bio consommés en France seraient importés", sept-oct 2009 (<http://www.biolineaires.com/articles/reperes/755-30p-des-produits-bio-consommés-en-france-seraient-importés.html#.VQZCfo7pwc0>)

on bat bada ere, 2013an Adrien Kempf-ek burutu duen lanarekin, non estimatzen zuen zonbat ekoizle behar ziren **Ipar Euskal Herriko lurraldean den batez besteko barazki kontsumoari, erantzuna ekartzeko (2004an pertsonaka 92 kg urtean<sup>103</sup>)**. Emaitzak erakusten zuen **2.509 laborari beharko zirela** gaur egun diren 117 Lan Unitate Urteko-ei konparatuz. Suposatuz barazki kontsumo behar horren %40a bakarrik hornituko genukeela, **erran nahi luke 1.004 lan postu garbiren sortzea**, horrek konpentsatuko lituzkeelarik Ipar Euskal Herrian 2000 eta 2010a<sup>104</sup> artean laborantza edo lehen sektorean galdu diren 1.082 denbora osoko lanpostuak.

Ber maneran, anitz ikerketek erakusten dute **hipermerkatu baten etorrerarekin sortzen den enplegu bakoitzak tokiko komertzio ttipi eta ertainean 1,64 enplegu suntsitzen dituela<sup>105</sup>**. Ipar Euskal Herrian, hipermerkatuek pisu handia dute eskualdeko komertzio aktibitatean. Zehazki, Pirinio Atlantikoetako departamenduak 130 elikagai hipermerkatu ditu eta 205 hipermerkatu elikagaiez bestalde<sup>106</sup>. Horrez gain, Ipar Euskal Herrian, elikagaien saltzeen %76,7a eta elikagaiez kanpoko produktuen saltzeen %73,1a hipermerkatuetan egiten dira<sup>107</sup>. Eta hori Estatu mailako %50,8ko bataz bestea baino gorago da. 2014ko abenduaren 31n, Ipar Euskal Herrian baziren 5.111 enplegu xehekako merkataritzan (auto eta motozikleten komertzioaz bestalde) 300 m<sup>2</sup>-tik gorako saltegitan, usaian GMS edo Merkatu Ertain eta Handia deituak direnetan<sup>108</sup>. **Ipar Euskal Herriko hipermerkatuen %60ren ordezkatzek 1.962 lan posturen berreskuratzea ahalbidetuko luke**. Zenbaki horrek kontuan hartzen du hurbileko komertzioetan eta zirkuitu laburretan sortuko liratekeen lanpostu guziaz eta haietarik kendu behar liratekeen Merkatu Ertain eta Handietan desagertuko liratekeenak.

## Ondorioak

2015eko urtarrilean, **“A” kategoriako langabetuen kopurua 15.883 pertsonakoa zen**. Iraunkorrak diren sektore produktiboen garapen plan batzuen eta ber denboran laborantza eta komertzioaren sektore ekonomikoen birtokiratzea xedetzat duen politika baten plantan emaitzak ondoriotzat luke 10.000 enplegu berriren sortzea. **Horrek erran nahi luke langabetuen kopuruaren %64ko apaltzea**.

Kontuan hartuz hori guziaz, baieztatzen ahal dugu **Ipar Euskal Herrian Trantsizio sozial eta ekonomikoa**, botere publikoentzat eta herritarrentzat ez dela betebeharrak bakarrik; baina ororen gaintetik, lurralde zuzenago eta jasangarriago baten eraikitzeko **parada**, baitezpadakoak diren **enpleguen sortzeko eta funtsezko sektore ekonomiko batzuen garatzeko**.

**Baionan, 2015eko apirilaren 23an**

<sup>103</sup> INRA: "Les fruits et légumes dans la alimentation. Enjeux et déterminants de la consommation", Novembre 2007 (<http://agriculture.gouv.fr/IMG/pdf/inra-fruits-legumes-synthese1-1.pdf>)

<sup>104</sup> Euskal Herriko Laborantza Ganbara: "Portrait & Évolution de l'agriculture du Pays Basque Nord, focus sur la montagne basque" Tome 1, Pag. 12 - Octobre 2014

<sup>105</sup> Neumark, D.; Zhang, J.; Ciccarella, S.: "The effects of Wal-Mart on local labor markets" Journal of Urban Economics 63 (2008) 405–430 (<http://www.socsci.uci.edu/~dneumark/walmart.pdf>)

<sup>106</sup> Institut National de la Statistique et des Études Économiques, 2013: "La situation du commerce en 2013" ([http://www.insee.fr/fr/publications-et-services/docs\\_doc\\_travail/E1408.pdf](http://www.insee.fr/fr/publications-et-services/docs_doc_travail/E1408.pdf))

<sup>107</sup> CCI Bayonne Pays Basque: "Le Pays Basque en Chiffres" Edition 2014-2015 (<http://www.bayonne.cci.fr/produit/Etudes/Pays-Basque-en-Chiffres-2014-2015.html>)

<sup>108</sup> Estimation Service Etudes-Développement économique de la CCI Bayonne Pays Basque.